

EUSKAL HERRIA



BERDEEK antolatutako gogoeta saioan agerian utzi zituzten uraren kudeaketari buruzko kezak. BERRIA

Uraren legeak ez direla betetzen diote Berdeek

Hazparraren baimenik gabe lohiak bota dituztela salatu dute bilkuran

AITOR RENTERIA - HAZPARRNE

Munduko Uraren Egunaren karietara, Iparraldeko Berdeek ur baliabideak izan dituzte hizpide Hazparraren. Zer baliabide bihar-ko? Zeinek kontrolatu eta kudeatuko du ura? Galdera horiei erantzun nahirik, Michel Rodés SEPANSO erakundeko ordezkaritari, Jean François Hamon Aturri Ur Gardena elkartearen arduradunari eta Philippe Garat Arbonako hautetsiari eman zieten hitza astelehen gauean.

Europako arau eta legeak betetzeko dauden zailtasunak eta atzerapenak argitaratu ekarri zituen Rodések. Europako 1999ko zuzentaraua indarrean sartzeko epea etengabe gibelaraziko dutela gaineratu zuen. Adour-Garonne agentziak egindako mapetan oinarritu zen baieztapena egiteko. Mapa horietan agertzen

dira nitratoak kutsatu geruza freatikoak eta oreka hauskorra duten eremuak. Nafarroa Beherea eta Lapurdiko lautada zein kostalde horiz agertzen dira, egoera txarrean daudelako.

«Uraren Agentziak iruzur egiten du», azaldu zuen Rodések. Nade izenarekin zerrendatzen diren tokiak —egokitasuna lortzen ez duten guñeak— artatzeko plangintzak betetzeko epeak etengabe gibelatzen direla salatu zuen. Uraren kalitatearen inguruan informazioa mozorrotzen dela berretsi zuen Jean Lissar Berdeetako kontseilari nagusiak ere. «Kontseilu Nagusiak hilaibetero ateratzen duen informazio orrian kalitatea ona dela erraten digute, nahiz eta delak jakin laborantzaren kutsadura present dela».

Mendiguneetan ere abeltzaintzak eta laborantzak ura kutsa-

tzen dutela azpimarratu zuten. Ura hartzen den guñeen inguruan legeak segurtasun eremuak finkatzen baditu ere, praktikan arau horiek ez dira betetzen.

Lohien arazoa

Lohien arazoa ere izan zuen hizpide Garatek. Izan ere, iragaztegiatiko lohien tratamendurako egiturarik ez zen Ipar Euskal Herriari. Orain Lyonnaise des Eaux enpresak lantegi bat egin du. Eta ondorio txarrak izango dituela uste du Garatek: «Urte batzuen buruan ikusiko dugu, fakturretan, zer den herri arazo bat enpresa pribatuaren eskuetan uztea». Miren Ameztoti Hazketa taldeko ordezkariek salatu zuten Hazparraren egun batean kamioi batek 120 metro kubiko lohi bota zituela, baimenik gabe.

ETXEKO INDARKERIA

Indarkeria saihesteko material didaktikoa sortu dute adingabeentzat

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Unicef elkarteak, etxe-ko indarkeria saihesteko asmoz, adingabeentzat balioei buruzko material didaktikoa sortu dute. Paperean eta CDan ateratu dute materiala, eskolatan lantzeko. Horretaz gain, eskolaz eskola emakumeen indarkeriaren aurka egindako hausnarketak ere badaude tartean. 4.000 ale egin dituzte, eta laster eskolatan banatzen hasiko dira.

ERREPIDEAK

Hiru lagun zauritu dira Igorren, bat larri, istripu handi batean

Igorren (Bizkaia) izandako istripu batean hiru lagun zauritu ziren atzo, horietako bat larri. Herri-zaingo Sailak jakinarazi zuenez, bi kamioi eta auto batek elkar jo zuten 14:25 inguruan, N-240 errepidean. Auto gidaria, 26 urteko emakumezkoa, Galdakaoko ospitalera eraman zuten, larri zaurituta. 22 eta 59 urteko bi kamioi gidariak ere Galdakaoko ospitalera eraman zituzten, zaurituta.

INGURUMENA

Oiangu publiko eta biziaren aldeko manifestua egin dute

Oiangu Ordiziako Udala eta Ikengu enpresa egitekoak diren makroproiektua geldiarazi nahian —golf zelaia, hotela, paint-ball-ean aritzeko zelaia...— Oiangu Publiko eta Bizirik plataformak manifestu bat egin du. Oianguren izaera publiko eta naturala aldarrikatu eta bermatu nahi dute, negozioak alboratu, eta Udalarik proiektua atzera botatzeko eskatu diote.

Leihatila ① MIELTXO MONFORT



Jesukristo Palankan

Pasa den astelehen iluntzean Nazaretarra izeneko kofradia, urtero legez, Gorteak eta ondoko kaleetan zehar paseatu zuen kristauen sinbolo eta pertsonaia mitiko horren irudia. Nabardura berezia dauka aipatu prozesioak, egun ia desagertuta dagoen arren, prostituta zaharrek saietak kantatzen dituztela. Bilboko kofradia erlijioso gehienak frankismoaren garaian sortuak dira, eta ordutik dator aipatu tradizioa «egindako bekatuak garbitzeko asmoz». Ospe handia zeukan eremuak duela hogeita hamar berrogei urte (eta gehiago), eta Bizkaiko zenbait txokotatik ez ezik Euskal Herriko beste hainbeste lekutatik joaten zen jendea, gizonak hobeto esanda, Palankara. Oraindik ez dakigu zehatz-mehatz izen horren jatorria: batzuen ustez, pasa den mendean garbiontzia (palangana) asko erabiltzen zutelako. Beste batzuentzat, aldiz, inguruan lan egiten zuten meatzarien palanketatik dator izena, putetxeen aurrean utzi behar baitzuten lan egiteko tresna hori.

Gauza asko aldatu dira Palankan azken hamarkadetan. Duela mende luze bat, jende mordoia pobrezia gorrian bizi zen, erreka ura zeukaten edateko, gaixotasunak erraz hedatzen ziren eta itzeleko esplotazioa jasaten zuten. Horri, aspaldian hiriko erdigunetik kanporaturiko putek goiko auzoetara jo izana gehitu behar zaio garaiak argazkia ikusteko. Leku arriskutsua omen zen, eta kontaezina dira orduko kronika beltzak: borrokak, hilketak, atxiloketak...

Baina gizarte honek duen moral bikoitzaren alde batek bortizki jazartzen zituen gaizkile guztiak, besteak orduak eta gauak ematen zituen bertan irekitako kafetegi eta kabaretetan. Historian ia ahaztuta geratu dira dagoeneko Gato Negro, Palanca 34 edo Bataclan izenak. Horien ondoan, gau aztarnarik geratzen ez den arren, milaka meatzarik (adin guztietakoak, alegia) saltzen zuten euren lanerako indarra Malaespera, San Luis, Silfide edo Abandonada meategietan. Jabeen artean zenbait ingeles baziren ere, Lewinson edo Mac Lennan esaterako, berehala eman zizkieten meatzeak errentan Lezama-Legizamon, Gandarias edo Aburto bezalako familiei.

Egun Bilbon gero eta kofrade gehiago dira eta gero eta prozesio gehiago egiten dira. Museoa ere badute horiek, Museoa edo Aste Santuko Pasoen biltegia, Udalak epe luzeak eta merke merke alokatuta. Aste Santuan, nagusi dira kalean, Balmasedan, Seguran edota

Corellan: urrun geratzen dira Gasteizen edo Bilbon 80ko hamarkadaren amaieran egindako manifestazio ateoak. «Kastitatearen aurka, kantitatea eta kalitatea», zioen horietariko elkarretaratze batean agerturiko pankartak. Urrun bai, eta urrunago, (zurrumurruek diotenez) anarkisten eta sozialisten ostiral santuko ezohiko bazkaria: egun horretan, urtean behin bederen, okela jaten zuten eta kalean, prozesioa pasatzerakoan hezurrak eta jaurtizko asmoz. Dena den, prozesio ateoak benetan, XIX. mendean bukaeran Palankako prostitutek egin zituzten, kalean behar zuten bezala lan egitea eragozten zitelako.

Palankara belaualdi askotako mutil eta gizonak joan dira, auzuea duela 20 urte Euskal Herriko legez kanpoko farmaziarik handiena bihurtu arte. Puten inguruan argi hitz egiten zuten duela hile batzuk ETBn agertutako ezker abertzale klasikoaren buruzagi batek: «...emakume horiei omenaldi handia egin beharko litzaieke... ezagun asko ikusi ditut nik bertan, Erljio irakaslea eta herriko apaiza besteak beste». Gizon askorentzat, auzo horretan burutu zen iniazio zeremonia hori, eta ez soilik bizkaitarrentzat, Realaren eta Athleticeen arteko norgehiagoka aitakia ona, ezin hobea, izaten baitzen... Donostiako Exe Maite putetxea institutua izan zen heinean, Gorteak unibertsitatea izan ziren arlo horretan. «Jesukristo Palankan» jarri dut izenburuan: garai batean (bi mende luzean zehar horretan) gertatutakoaren arabera, «Kristo guztia» jarri behar izan nukeen (apaiz eta kofrade batzuk barne). Edo «Palankatik zerura», kontuan hartuta azken bi hamarkadetan zenbat lagun joan diren gaindosi edo horren inguruko arazoa dela kausa. Baina hori beste kontu bat da. Ala ez?